



## **Haurreskolak Partzuergoko Langileen lan hitzarmenerako LABek prestakuntza arloan egiten dituen proposamenak.**

Partzuergoko langileek behar duten prestakuntzaz hasi baino lehenago, eta negoziazioa egiten den bitartean, LABek uste du iragan ikasturtean eskainitakoaz, erabilitako formatoz, larunbatetan, eta emailetak azterketa eta ebaluaketa egin beharko litzatekeela. Horretarako bahar beharrezkoa iruditzen zaigu Partzuergoak pasa den ikasturtean prestakuntza jaso zuten langileei galdetzea, berriro hankasartze berdina ez errepikatzeke.

Sakabanaketaz eta isolamendu profesionalaz gain, sortu berri diren ikastetxeetako formaziorako lan baldintzak desagokiak izan dira. Ordutegi-egutegiak, batez ere, errebisatu beharko ditugu benetan formakuntza lan serioa egin nahi baldin bada.


### *1. Hainbat oinarrizko irizpide eta aurreiritzi (proposamen zehatzak egiten hasi aurretik)*

---

Ekipo txikiak dira gehienetan eta gainera sakabanaturik herri txiki eta koxkorretan. Elkarren artean distantzia handi xamarra daude. Isolamendua puskatu beharko luke formazio ahaleginak, eta hezitzaileen arteko komunikazioa sustatu, elkarri eraginez harreman profesionala aberasteko.

Batzuk oso beteranoak diren bezala, beste asko hasi berriak dira. Heziketa premiak askotarikoak izango dira seguraski, egoerak eta esperientzia bera ere anitzak direlako. Formakuntza eskaintzak oso kontuan hartu beharko du aniztasun hau, eta aldi berean, aprobetxatzen jakin beharko luke kolektibo profesional honetan dagoen esperientzia aberatsa. Halaber ere, formakuntza eskaintza honek Euskal Herrian bertan (Gasteiz) zein beste lurraldetan dauden esperientziak kontuan hartu beharko luke.

Komunikazio horizontalak (profesionalen artekoa) tarte handia behar du formazio planean. Koordinaketa, kontrastaketa, lankidetzak eta elkar trukea, bisitak... partzuergoaren proiektua-estilo propioa definitzen lagunduko dute (beharko lukete).



Bestetik, ikastegien oinarrizko irizpideak, proiektua, estilo propioa, egiteke dago. Eta lan ildo honek oso urgentzia handia ez badu ere, estrategikoki garrantzi handia izango du. Ikastetxean ardazturiko formazio ekimenei lehenetsua eman beharko litzaioke. Bertatik bertara.

Lanean zuzenean lagundu beharko luke formazioak, lanean eraginez. Praktikako dilemak eta egoerak aztergai izan beharko lituzke. Formazio ekimenen eduki ardatz nagusia eguneroko lana izan behar da, egunerokoari tarte eginez diseinatzen bada motibagarriago eta esanguratsuago suertatuko da..

Formazio planak diagnostiko bati erantzun beharko lioke. Premia formatiboak antzeman behar dira, behetik gorantz... Hezitzaileen espektatibak, nahaiak, beharrak, asebate beharko ditu programatzen denak.

## 2. Zertaz, formazioa

LABen ustetan, **gai zehatzak eta praktikatik hurbilak** beharko lukete izan, eta horrekin batera praktikari begira **ekarpenak** (errezetak) egiteaz gain, **hausnarketarako guneak** eskaini.

Baina, batez ere, irakats-kolektiboak berak planteatu edo aukeratu beharko lituzke. Akaso, hasierako eskeintza zabal bat egin beharko da, gero kolektiboaren iritziak, beharrak, nahiak... entzuteko, eta ondoren diseinua zehazteko (egutegia, programak, irakasle gonbidatuak, formatua...).

### Hona eduki posible batzuk

Gure eskola: espazioak eta hornidura;  
Gurasoekin hartu emana eta kolaborazioa;  
Ordutegia eta eguneko errutinak adinetara egokitu;  
Jolas tokia: hornidura eta erabilera irizpideak;  
Hezikidetza txikienekin ere:

- Espazioaren erabilera.
- Jolasean
- Ipuinak kontatzen.
- Marrazkiak egiten.
- Haur eskolako paisaia.
- Famili ereduak
- Interkulturalitatea


Emozioak eta autoestimua txukun lantzeko pistak;  
Jolasa eta jostailuak 0/3 eskoletan;  
Musika eta kantak;  
Psikomotrizitatea;  
Haur masajea;  
Egokitze garaia;  
Behaketa eta jarraipenaren sistematizazioa;  
Jaien ospakizunak;  
Irteerak eta paseotxoak;  
Hezitzailearen esku hartzea eta rola...  
Elikadura, osasuna, segurtasuna gure eskoletan;  
Loaren inguruko irizpideak;  
Informatika;...

Eskaria zein den ikusi ondoren errazago izango da formazio moduloak nola antolatu: egutegia, tamaina, formatoa... Gai batzuk beste batzuekin lotu daitezke modulu zabalagoak eginez. Beste batzuetan, modulu kateak antolatu daitezke...

### 3. Nola, formazioa

**Partzuegoak formazio eredu bat mugatu** beharko luke: Lan baldintza egokiak (denbora) sortuz; premiak antzemateko mekanismoak martxan jarriaz; aholkularitza-apoio-laguntza zerbitzu bat eskainiz; baliabidetegi bat eraikiz; komunikazio horizontala sustatuz (ikastegien artekoa, ikastetxe barrukoa); presentzialitatea eta sinkroniak aurreikusiz, baina baita ere bakarko lan autonomia; on line bidaxkari tartea irekiz; beteranoen esperientzia aprobetxatzeko mekanismoak (dedikazio murrizketak, liberazioak) sortuz; kanpoko eta hezkuntza sistemako baliabideak nola aprobetxatu ikusiz; partaideen errola formazioan zein behar duen izan definituz; formazioa ekimen anekdotiko mordoxka bat izatetik jarraipena eta sistematizazioa izango duen zerbitzu izatera urratsa egitea...

Ikastaro puntualak antolatze hutsetik haratago **formazio eskenategi eta formato ezberdinak** abian jarri behar dira.. Idazki honetan planteatu diren oinarritzko irizpideen arabera, ondoko formatoak martxan jarri daitezke:



Lehenengo zutabean hitzaldiak, jardunaldiak eta ikastaroak sartu ditugu. Kanpoko espezialisten esku uzten diren ekimen formatiboak dira. Funtsean *jasotzeko* pentsatuak daude. Ikastetxetik irten eta ezagueren bila joatekoak...

Bigarrenean, mintegiak, lan-taldeak eta ekipo barruko koordinaketa bilerak pilatu ditugu. Gai baten inguruko hausnarketa, profesionalen arteko elkartrukea, dokumentu baten inguruko eztabaida eta kontsentsua, ikas-irakats materialak sortzeko ahalegina... formazioarako gune interesgarriak dira. Funtsean, *sortzeko* momentu profesionalak dira.

Hirugarrenean berriz, ekipoen ahalegin formatiboari laguntza eskainiko lioketen baliabideak bildu ditugu: aholkularitza zerbitzu bat (ibiltaria, on line...); baliabidetegi bat (artikuluak, esperientziak, protokoloak, gidoiak, liburuak...).